2014/07/22an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 22/07/2014.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Jose Angel Petralanda Gil
Rosario Arcarazo Arcarazo
Maria Purificación Regidor Varela

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2014ko uztailaren 22an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beñat Herce Leceta jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Madinabeitia, Merino eta Cantero jaunak, eta Landa andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 22 de julio de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Beñat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Madinabeitia, Merino y Cantero y la Sra. Landa.

## 1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2014-04-29 eta 2014-05-27.

## 2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2014ko uztailaren 18ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

## 3.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

4. MARIA PURIFICACION REGIDOR VARELA ANDREAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

9. ESKORIATZAKO UDALAK HERRIKO KOMERTZIO ETA GAINONTZEKO ERAKUNDEEI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO ERABILIKO DITUZTEN EDUKIONTZIAK FINANTZATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA.

10. IÑAKI MADINABEITIA ELORZA JAUNAK ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGIN IZANAREN BERRI JASOTZEA.

11. ZINEGOTZI HAUTATUAK KARGUA HARTZEARI UKO EGIN IZANAREN BERRI JASOTZEA.

12. BATZORDE INFORMATZAILEETARAKO KIDE BERRIAK IZENDATZEA.

13. EAJ-PNV ESKORIATZAKO UDAL TALDEKO ETA ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEKO (EEE) UDAL TALDEKO BOZERAMALE BERRIAK IZENDATZEA.

14. HAINBAT ERAKUNDE ETA ELKARTEETARAKO UDAL ORDEZKARI BERRIAK IZENDATZEA (Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea, Junta del Patronato Jose Arana Patronatuko Junta, Leintz Udal Euskaltegia, Jakion, Zubillaga Hiltegia S.L. eta Aizkorri Aratz parkeko patronatua).

## 4.- MARIA PURIFICACION REGIDOR VARELA ANDREAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Purificacion Regidor Varela andreak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitorpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen; eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Purificacion Regidor Varela andreari bere kargua eman dio.

## 5.- 2013KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAK BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2013ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren eta Telesko Udal Telebista fundazioaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Udalaren eta Telesko fundazioaren aurrekontuen kitapenak.

2014ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2014ko maiatzaren 28an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Horiek horrela, eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Regidor andrea abstenituta eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

“2013ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2014ko maiatzaren 20an egindako Kontu Batzorde Berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2014ko maiatzaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

**6.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik edo bidezkoak ez izateagatik, aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko, denak ere 2007tik 2013 arteko zerga aldikoak, diru bilketa zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Horiek horrela, Ogasun batzordearen proposamenarekin bat etorriz, eta denon aldeko botoarekin honako hau erabaki du Udalbatzarrak:

**LEHENENGOA.-** 2007tik eta 2013 arteko ekitaldiei dagozkien eta kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedienteak onartzea eranskin gisa doazen zerrendetan agertzen diren kontzeptuengatik, subjektu pasiboei eta diru kopuruengatik. Hona hemen horien laburpena:

| (*)KONTZEP/EPEA/ZKIA | ZENBATEKOA (€) | ZERGADUNA | ZERGATIA |
|---|---|---|---|
| 090 2009 01 54 | 294,30 | IGNACIO HORRILLO MONTSE | Ez dagokio kitapena (Extinción de condominio). |
| Espte tasa (tramitazioa) 2007HBJI0002 | 210,54 | REPSOL BUTANO, S.A. | **Preskripzio** |
| Obra zerga | 291,11 | MARTÍNEZ ALTUNA ANDRÉS | Preskripzio |

| (*)KONTZEP/EPEA/ZKIA | ZENBATEKOA (€) | ZERGADUNA | ZERGATIA |
|---|---|---|---|
| 2008KDLI0034 | | | |
| Obra tasa 2009KDLI0023 | 177,76 | LUIS EZEIZA HERRI IKASTETXEA | Preskripzio |
| Obra zerga 2009KDLI0023 | 286,70 | LUIS EZEIZA HERRI IKASTETXEA | Preskripzio |
| Obra tasa 2008KDLI0038 | 1045,39 | EUSKO JAURLARITZA | Preskripzio |
| Obra zerga 2008KDLI0038 | 1686,12 | EUSKO JAURLARITZA | Preskripzio |
| Obra tasa 2006KDLI0059 | 1616,07 | JABEKIDEAK DORLETA 1-17 | Preskripzio |
| Obra zerga 2006KDLI0059 | 1303,28 | JABEKIDEAK DORLETA 1-17 | Preskripzio |
| 048 2013 01 224 | 843,68 | SOLOGAISTOA AGUIRIANO PELLO | EBAZPENA 2014/41 |
| 048 2013 01 221 | 544,76 | NARVAIZA ZUBIAGA ARATZ | EBAZPENA 2014/42 |
| 048 2013 01 214 | 544,90 | GOROSARRI BARBARIAS LUIS | EBAZPENA 2014/14 |
| 090 2013 01 128 | 26,81 | CORTAZAR IZURRATEGI BERNARDO | Ez dagokio kitapena (Extinción de condominio). |

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza eta Diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**7.- JOSE ARANA PATRONATUAN EGINDAKO OBRAK GIZARTEAREN INTERESEKOTZAT JOTZEA.**

2011ko martxoaren 15eko alkatea erabakiz hirigintza lizentzia eman zitzaion Jose Arana Patronatuko Fundazioari honako obra hau egiteko: oinezkoentzako sarbide berria Gaztañadui 22an dagoen zaharren egoitzara.

Lizentzia ematearekin batera, horrek sortutako tasa eta zergaren kitapena egin zen, hurrenez hurren, 81,54 euro eta 1.315,15 euro.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen ordenantzako 5.3.3.4 artikuluan aurreikusitako hobaria egiteko eskatu du Fundazioak 2014ko ekainaren 20an. Aurkeztutako idazkian eskaera arrazoitzen da.

Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, eta horrekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Jose Arana zaharren egoitzan oinezkoentzat sarbide berria egiteko egindako obrak gizartearen interesekotzat jotzea, eta ondorioz, % 95eko hobaria aitortzea sortutako EIOZean.

**8.- UDAL HAUR ESKOLAKO ZERBITZUAREN (0-3 urte, haur hezkuntzako lehen zikloa) ERABILTZAILEEK 2014-2105 IKASTURTEAN ORDAINDU BEHARREKO TARIFAK ONARTZEA.**

0-3 urte bitarteko (haur hezkuntzako lehen zikloa) haur eskolako udal zerbitzuaren emakidadun Arizmendi Koop. Elkarteak eskaria egin du 2014-2015 ikasturterako honako prezioak baimentzeko:

| Hilean | 2013/2014 ikasturtea | 2014/2015 ikasturtea | % 0, 3 |
|---|---|---|---|
| 0 urte | 228,95 | 229,64 | 0,30 |
| 0 urte murriztua | 171,84 | 172,36 | 0,30 |
| 1 urte | 196,54 | 197,13 | 0,30 |
| 1 urte murriztua | 147,40 | 147,84 | 0,30 |
| 2 urte | 77,43 | 77,66 | 0,30 |

Kontuan izanik baldintza ekonomiko-administratiboen Pleguko 6. klausulak ezartzen duena:

*Kontratuaren bigarren urtetik, berraztertzean aplikatu beharreko formula izango da aurreko urteko izaera nazionaleko Kontsumorako Prezioen Indizearena.*

Kultura batzorde informatzailearen diktamena ikusi da.

Horiek horrela, bozketa eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU.

**Lehenengoa.-** Emakidadunari baimena ematea erabiltzaileei kobratzen dizkien tarifak 20014-2015 ikasturtean prezio hauetara egokitzeko:

| *Tarifa Mensual* | ***2014/2015 ikasturtea*** |
|---|---|
| *0 urte* | *229,64* |
| *0 urte murriztua* | *172,36* |
| *1 urte* | *197,13* |
| *1 urte murriztua* | *147,84* |
| *2 urte* | *77,66* |

**Bigarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokeela Udalbatzar honi hilabeteko epean jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bi hilabeteko epean, Donostiako dagokion maila bereko Auzitegian, guzti hori egin gura dituen bestelako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kaltetan gabe.

**9.- ESKORIATZAKO UDALAK HERRIKO KOMERTZIO ETA GAINONTZEKO ERAKUNDEEI HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO ERABILIKO DITUZTEN EDUKIONTZIAK FINANTZATZEKO EMANGO DITUEN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA.**

Bozketa eginda, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako udalak herriko komertzio eta gainontzeko erakundeei hondakinen gaikako bilketarako erabiliko dituzten edukiontziak finantzatzeko emango dituen diru laguntzak arautuko dituzten oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

**10.- IÑAKI MADINABEITIA ELORZA JAUNAK ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGIN IZANAREN BERRI JASOTZEA.**

AGRUPACION DE ANTEIGLESIAS DE ESKORIATZA-ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEAREN (EEE-AAE) taldetik udal honetako zinegotzi den IÑAKI MADINABEITIA jaunak zinegotzi karguari uko egiteko aurkeztutako idazkia irakurri da.

Udalbatzarrak uko egite horren berri jaso du, kargua bete gabe geratzen dela adierazi du, eta Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako ondorioetarako, uko egite hori Hauteskunde Administrazioari jakinaraztea erabaki du.

**11.- ZINEGOTZI HAUTATUAK KARGUA HARTZEARI UKO EGIN IZANAREN BERRI JASOTZEA.**

Udal idazkariak jakinarazi du AGRUPACION DE ANTEIGLESIAS DE ESKORIATZA-ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEKO (EEE-EAE) zerrendan ordezko hautagaia zen DORLETA EVA APERRIBAI ZUBIA andreak zinegotzi kargua hartzeari aurrez uko egiteko idazkia aurkeztu duela. Kargu hori hartzea berari zegokion, zerrendako hurrenkeraren arabera, Iñaki Madinabeitia Elorza zinegotzi jaunak bere karguari uko egin ondoren.

Udalbatzarrak uko egite horren berri jaso du, eta Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako ondorioetarako, uko egite hori Hauteskunde Administrazioari jakinaraztea erabaki du.

**12.- BATZORDE INFORMATZAILEETARAKO KIDE BERRIAK IZENDATZEA.**

Aitor Urrutia Oianguren jaunak eta Iñaki Madinabeitia Elorza jaunak zinegotzi karguari uko egin diotenez, beraien ordez kide berriak izendatu behar dira batzorde informatzaileetan.

Udal talde bakoitzak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Aitor Urrutia Oianguren jaunaren ordez Maria Purificación Regidor Varela andrea izendatzea Udal honetako batzorde informatzaileetako kide.

**Bigarrena.-** Iñaki Madinabeitia Elorza jaunaren ordezko kideak beste batean izendatzeko uztea.

**13.- EAJ-PNV ESKORIATZAKO UDAL TALDEKO ETA ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEKO (EEE) UDAL TALDEKO BOZERAMALE BERRIAK IZENDATZEA.**

Aitor Urrutia Oianguren jaunak eta Iñaki Madinabeitia Elorza jaunak zinegotzi karguari uko egin diotenez, beraien ordez beraien udal taldeetako bozeramale berriak izendatu behar dira.

Udal talde bakoitzak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Aitor Urrutia Oianguren jaunaren ordez Maria Purificacion Regidor Varela andrea izendatzea EAJ-PNV Eskoriatzako Udal taldeko bozeramale.

**Bigarrena.-** Iñaki Madinabeitia Elorza jaunaren ordez Rosario Arkarazo Arkarazo andrea izendatzea Eskoriatzako Elizateen Elkartea udal taldeko bozeramale.

**14.- HAINBAT ERAKUNDE ETA ELKARTEETARAKO UDAL ORDEZKARI BERRIAK IZENDATZEA (Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea, Junta del Patronato Jose Arana Patronatuko Junta, Leintz Udal Euskaltegia, Jakion, Zubillaga Hiltegia S.L. eta Aizkorri Aratz parkeko patronatua).**

Iñaki Madinabeitia Elorza jaunak zinegotzi karguari uko egin dioenez, udal ordezkari berria izendatu behar da Udal hau berak ordezkatzen zuen erakunde eta elkarteetarako.

Eskoriatzako Elizateen Elkarteko zinegotzi eta bozeramale Rosario Arkarazo andreak egindako eskaeraren arabera, gaia aztertzeke gelditzen da, eta iraileko ohiko osoko bilkuran aztertuko da.

## 15.- EZKER ANITZAREN ESKARIZ GAZAKO EGOERARI BURUZKO MOZIOA.

Mozioa Ezker Anitzako ordezkari Merino jaunak eskatuta aurkeztu. Bera ez dagoenez bilkuran, gaia aztertzeke laga eta iraileko ohiko osoko bilkuran aztertzea erabaki da.

**16.- ESKORIATZAKO HERRIRAREN IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Hitza eman ondoren, Eskoriatzako Presoen Lagunak taldeko ordezkari batek ondoren osorik transkribatzen den mozioa irakurri du:

*Euskal gizartea konponbidearen aitzinean urrats garrantzitsuak ematen ari den arren, Espainiar eta Frantziar Estatuek egoera lehengoan mantentzeko saiakera itsuan jarraitzen dute. Gorroto eta mendeku politikaren ondorioek egunero bizi ditugu gure herrian ere eta horren adibide dugu, uztailaren 22 eta 23an lau eskoriatzar Espainiako Audientzia Nazionalean deklaratzera deituak egotea.*

*Egoera horren aurrean zera adierazi nahi dugu:*

*1981ean, polizia nazionalaren Gasteizko ziegetan, torturapean zinatutakoak epailearen aurrean berrestera deitzeak:*

*1.- ez duela inongo zentzurik egun bizi dugun bake prozesu honen baitan, eta gogor salatzen dugu Espainiar Estatuaren gorroto eta mendeku politika.*

*2.- Euskal herritarren aurka behin eta berriz erabili den eta erabiltzen den tortura sistematikoa salatzen dugu, eta berriz gerta ez dadin neurriak hartzeko eta tortura salaketak ikertuak eta epaituak izateko eskatzen dugu.*

*Amaitzeko: gure babes osoa eman nahi diogu Guenetzea-Iparragirretar senideari eta konponbide demokratikoaren bidean pausoak ematen jarraitzeko konpromisoa sendoa berresten dugu.*

Irakurketa amaituta, Alkate jaunak esan du bere taldeak alde bozkatu behar duela, mozioarekin ados dagoelako. Regidor andreak adierazi du bera abstenitu egingo dela ez duelako behar beste informazio mozioaren gaiari buruz.

Horiek horrela, mozioa bozkatu da eta, abstentzio 1ekin (Regidor andrea), eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta,onartu egin da.

**17.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:05ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

2014/07/22an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 22/07/2014.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Jose Angel Petralanda Gil
Rosario Arcarazo Arcarazo
Maria Purificación Regidor Varela

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2014ko uztailaren 22an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beñat Herce Leceta jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Madinabeitia, Merino eta Cantero jaunak, eta Landa andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 22 de julio de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Beñat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Madinabeitia, Merino y Cantero y la Sra. Landa.

**1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones celebradas el 29/04/2014 y el 27/05/2014.

**2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.**

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 18 de julio de 2014 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

**3.- RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA DE LA CONVOCATORIA.**

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

4. TOMA DE POSESION DE CARGO DE CONCEJALA POR DÑA. MARIA PURIFICACION REGIDOR VARELA.

9. APROBACION DE BASES QUE REGULAN LAS SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACION DE CONTENEDORES DESTINADOS POR EL COMERCIO Y LA INDUSTRIA MUNICIPALES EN LA RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS

10. TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA AL CARGO DE CONCEJAL PRESENTADA POR D. IÑAKI MADINABETIA ELORZA.

11. TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA PRESENTADA POR CONCEJAL ELECTO

12. NOMBRAMIENTO DE NUEVOS MIEMBROS DE COMISIONES INFORMATIVAS

13. NOMBRAMIENTO DE NUEVO PORTAVOZ DEL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV Eskoriatzako Udal Taldea y DEL GRUPO MUNICIPAL Eskoriatzako Elizateen Elkartea (E.E.E.)

14. DESIGNACION DE NUEVO REPRESENTANTE DEL AYUNTAMIENTO EN DISTINTAS ENTIDADES Y ASOCIACIONES (Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea, Junta del Patronato Jose Arana, Leintz Udal Euskaltegia, JAkion, Zubillaga Hiltegia S.L. y Patronato del Parque Aizkorri Aratz)

**4.-TOMA DE POSESION DE CARGO DE CONCEJALA POR DÑA. MARIA PURIFICACION REGIDOR VARELA.**

Dada cuenta al Pleno de que ha sido formulada la declaración de bienes patrimoniales, y de causas de posibles incompatibilidades y actividades que puedan proporcionar ingresos económicos, a los efectos de su inscripción en el correspondiente registro de intereses, tal como está previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y cumplidos los trámites legales de

toma de posesión del cargo de concejala el Pleno da posesión de su cargo a Dña. Purificación Regidor Varela.

## 5.- APROBACION DEFINITIVA DE LAS CUENTAS GENERALES 2013.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2013, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación y de la Fundación Telesko Udal Telebista , junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento y de la Fundación Telesko.

En sesión de fecha 20 de mayo de 2014 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 28 de mayo de 2014, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Hacienda , la abstención de la Sra. Regidor y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

"Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2.013, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 20 de mayo de 2014 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 28 de mayo de 2014, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado."

## 6.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS

Se ha dado cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas, todos ellos comprendidos entre los periodos fiscales del 2007 al 2013.

Visto lo cual, de conformidad con la propuesta de la comisión de Hacienda, y con el voto favorable de todos los presentes, el Pleno acuerda lo siguiente:

Horiek horrela, Ogasun batzordearen proposamenarekin bat etorriz, eta denon aldeko botoarekin honako hau erabaki du Udalbatzarrak:

**PRIMERO.-** Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro correspondiente a los ejercicios comprendidos entre el 2007 y el 2013, por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en el listado siguiente:

| (*)CONCEPTO/PLAZO/Nº | IMPORTE (€) | CONTRIBUYENTE | MOTIVO |
|---|---|---|---|
| 090 2009 01 54 | 294,30 | IGNACIO HORRILLO MONTSE | No le corresponde liquidación (Extinción de condominio). |
| Espte tasa (tramitación) 2007HBJI0002 | 210,54 | REPSOL BUTANO, S.A. | **Prescripción** |
| Obra impuesto 2008KDLI0034 | 291,11 | MARTÍNEZ ALTUNA ANDRÉS | Prescripción |
| Obra tasa 2009KDLI0023 | 177,76 | LUIS EZEIZA HERRI IKASTETXEA | Prescripción |
| Obra impuesto 2009KDLI0023 | 286,70 | LUIS EZEIZA HERRI IKASTETXEA | Prescripción |
| Obra tasa 2008KDLI0038 | 1045,39 | EUSKO JAURLARITZA | Prescripción |
| Obra impuesto 2008KDLI0038 | 1686,12 | EUSKO JAURLARITZA | Prescripción |
| Obra tasa 2006KDLI0059 | 1616,07 | JABEKIDEAK DORLETA 1-17 | Prescripción |
| Obra impuesto 2006KDLI0059 | 1303,28 | JABEKIDEAK DORLETA 1-17 | Prescripción |
| 048 2013 01 224 | 843,68 | SOLOGAISTOA AGUIRIANO PELLO | RESOLUCIÓN 2014/41 |
| 048 2013 01 221 | 544,76 | NARVAIZA ZUBIAGA ARATZ | RESOLUCIÓN 2014/42 |
| 048 2013 01 214 | 544,90 | GOROSARRI BARBARIAS LUIS | RESOLUCIÓN 2014/14 |
| 090 2013 01 128 | 26,81 | CORTAZAR IZURRATEGI BERNARDO | No le corresponde liquidación (Extinción de condominio). |

**SEGUNDO**.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

**7.- DECLARACION DE INTERES SOCIAL LAS OBRAS EJECUTADAS POR EL PATRONATO JOSE ARANA**

Por Resolución de Alcaldía de fecha 15 de marzo de 2011 se acordó conceder licencia urbanística a la Fundación Patronato Jose Arana para ejecutar las obras que a continuación se describe: ejecucion de un nuevo acceso peatonal en la residencia de ancianos sita en Gaztañadui nº 22.

Junto con la concesión de la licencia se procedió a practicar la liquidación de la tasa e impuesto devengados, ascendiendo respectivamente a 81,54 euros y 1.315,15 euros.

Con fecha 20 de junio de 2014 la Fundación solicita se reconozca la bonificación prevista en el art. 5.3.3.4 de la Ordenanza reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. En dicho escrito motiva la solicitud.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, y de conformidad con la misma, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Declarar de INTERES SOCIAL la obra de nuevo acceso peatonal ejecutada en la residencia de ancianos de Jose Arana y en consecuencia reconocer una bonificación del 95% en el ICIO devengado.

**8.- APROBACION DE TARIFAS 2014-2015 PARA ABONAR POR USUARIOS DEL SERVICIO MUNICIPAL DE ESCUELA INFANTIL (0-3 años, primer ciclo de educación infantil)**

Vista la solicitud cursada a instancia de Arizmendi Koop. Elkartea ., concesionario del servicio Escuela Municipal Infantil de 0-3 años (primer ciclo de educación infantil), y consistente en que se autorice para el curso escolar 2014-2015 los siguientes precios:

| Mensual | Curso 2013/2014 | Curso 2014/2015 | 0,3 % |
|---|---|---|---|
| 0 años | 228,95 | 229,64 | 0,30 |
| 0 años reducida | 171,84 | 172,36 | 0,30 |
| 1 año | 196,54 | 197,13 | 0,30 |
| 1 año reducida | 147,40 | 147,84 | 0,30 |
| 2 años | 77,43 | 77,66 | 0,30 |

Atendiendo que la cláusula 6 del Pliego de condiciones económico-administrativas que rige el contrato establece que:

*La fórmula a aplicar en la revisión, a partir del segundo año de contrato, será la del Indice de Precios al Consumo general de carácter nacional del año anterior.*

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Cultura y

Efectuada la votación, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Autorizar al concesionario a que durante el curso 20014-2015 revise las tarifas que cobra a los usuarios de conformidad con el siguiente cuadro de precios propuesto:

| ***Tarifa Mensual*** | ***Curso 2014/2015*** |
|---|---|
| *0 años* | *229,64* |
| *0 años reducida* | *172,36* |
| *1 año* | *197,13* |
| *1 año reducida* | *147,84* |
| *2 años* | *77,66* |

**Segundo:** Notificar el presente acuerdo al interesado, haciéndole saber que contra el mismo podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a su notificación ante este Pleno o recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado del mismo orden de los de Donostia-San Sebastian que corresponda, sin perjuicio del ejercicio de aquellas acciones que estime oportuno.

**9.- APROBACION DE BASES QUE REGULAN LAS SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACION DE CONTENEDORES DESTINADOS POR EL COMERCIO Y LA INDUSTRIA MUNICIPALES EN LA RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS**

Previa votación, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**Primero:** Aprobar las BASES PARA LA CONCESION DE SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACION DE CONTENEDORES DESTINADOS POR EL COMERCIO Y LA INDUSTRIA MUNICIPALEN EN LA RECOGIDA SELECTIVA DE RESIDUOS

**Segundo:** Someter dichas BASES a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones dichas BASES se entenderán definitivamente aprobadas sin necesidad de nuevo acuerdo.

**Cuarto:** Facultar al Sr. Alcalde para que, aprobadas dichas BASES, convoque las ayudas por las mismas reguladas y autorice el gasto correspondiente.

**10.-TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA AL CARGO DE CONCEJAL PRESENTADA POR D. IÑAKI MADINABETIA ELORZA.**

Se da lectura al escrito presentado por D. IÑAKI MADINABETIA , concejal de este Ayuntamiento por la AGRUPACION DE ANTEIGLESIAS DE ESKORIATZA- ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA (EEE-EAE) y a través del cual presenta su renuncia al cargo de concejal.

El Pleno de la Corporación toma conocimiento de dicha renuncia, declara vacante el cargo y acuerda poner dicho hecho en conocimiento de la Administración Electoral a los efectos previstos en el Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General.

**11.-TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA PRESENTADA POR CONCEJAL ELECTO**

La Secretaria de la Corporación da cuenta del escrito de renuncia anticipada que presenta Dña. DORLETA EVA APERRIBAI ZUBIA, candidata suplente de la lista de la AGRUPACION DE ANTEIGLESIAS DE ESKORIATZA- ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA (EEE-EAE) y a quien, atendiendo a su orden de colocación, correspondería cubrir la vacante producida ante la renuncia del concejal D. Iñaki Madinabeita Elorza.

El Pleno de la Corporación toma conocimiento de dicha renuncia y acuerda poner dicho hecho en conocimiento de la Administración Electoral a los efectos previstos en el Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General.

**12.-NOMBRAMIENTO DE NUEVOS MIEMBROS DE COMISIONES INFORMATIVAS**

Ante las renuncias al cargo de concejal de D. Aitor Urrutia Oianguren y D. Iñaki Madinabeitia Elorza es preciso proceder, en sustitución, al nombramiento de nuevos miembros en las Comisión Informativos.

De conformidad con la propuesta que hace cada grupo municipal, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Designar , en sustitución de D. Aitor Urrutia Oianguren, a Dña. María Purificación Regidor Varela como miembro de todas las Comisiónes Informativas de este Ayuntamiento.

**Segundo:** Dejar sobre la mesa la designación de los nuevos miembros en sustitución de D. Iñaki Madinabeitia Elorza.

**13.-NOMBRAMIENTO DE NUEVO PORTAVOZ DEL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV Eskoriatzako Udal Taldea y DEL GRUPO MUNICIPAL Eskoriatzako Elizateen Elkartea (E.E.E.)**

Ante las renuncias al cargo de concejal de D. Aitori Urrutia Oianguren y D. Iñaki Madinabeitia Elorza es preciso proceder, en sustitución, al nombramiento de nuevos portavoces de los grupos municipales de los que formaban parte.

De conformidad con la propuesta que hace cada grupo municipal, el Pleno, por unanimidad ACUERDA:

**Primero:** Designar , en sustitución de D. Aitor Urrutia Oianguren, a Dña. María Purificación Regidor Varela como portavoz del grupo municipal EAJ-PNV Eskoriatzako Udal taldea.

**Segundo:** Designar, en sustitución de D. Iñaki Madinabeitia Elorza, a Dña. Rosario Arkarazo Arkarazo como portavoz del grupo municipal Eskoriatzako ELizateen Elkartea.

## 14.- DESIGNACION DE NUEVO REPRESENTANTE DEL AYUNTAMIENTO EN DISTINTAS ENTIDADES Y ASOCIACIONES (Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea, Junta del Patronato Jose Arana, Leintz Udal Euskaltegia, JAkion, Zubillaga Hiltegia S.L. y Patronato del Parque Aizkorri Aratz)

Ante la renuncia al cargo de concejal de D. Iñaki Madinabeitia Elorza, es preciso designar nuevo representante municipal en las distintas entidades y asociaciones en las que representaba a este Ayuntamiento.

De conformidad con la solicitud cursada por Dña. Rosario Arcarazo, concejala y portavoz de Eskoriatzako Elizateen Elkartea, el asunto queda sobre la mesa para ser tratado en el pleno ordinario del mes de setiembre.

## 15.-MOCION PRESENTADA A INSTANCIA DE EZKER ANITZA SOBRE LA SITUACION EN GAZA

La moción se presenta a instancia del Sr. Merino, representante de Ezker Anitza. Ante la ausencia del mismo, se acuerda dejar el asunto sobre la mesa y tratar dicha moción en el pleno ordinario del mes de setiembre.

## 16.- MOCION PRESENTADA A INSTANCIA DE ESKORIATZAKO PRESOEN LAGUNAK

Concedida la palabra, una representante de Eskoriatzako Presoen Lagunak, lee la moción cuyo texto íntegro se transcribe a continuación:

*Aunque la sociedad vasca está dando importantes pasos ante la resolución del conflicto, los estados español y frances continuan intentando ciegamente en mantener la situación anterior. Estamos sufriendo a diario en nuestro puebo las consecuencias del odio y la politica de venganza, y prueba de ello es que 4 eskoriatzarras esten llamados a declarar ante la Audiencia Nacional de España los dias 22 y 23 de julio.*

*Ante esta situación queremos manifestar lo siguiente:*

*El haber sido llamados a ratificar ante el juez lo firmado en 1981 bajo torturas en los calabozos de la policia nacional en Gasteiz:*

*1.- no tiene ningun sentido dentro del proceso de paz que vivimos hoy en día, y denunciamos con toda la fuerza el odio y venganza politica del Estado Español.*

*2.- Denunciamos la tortura sistematica que se utiliza una y otra vez contra los ciudadanos de euskal herria, y solicitamos que se tomen medidas para que no se repitan y para que las denuncias de tortura sean investigadas y juzgadas.*

*Para finalizar, queremos dar todo nuestro apoyo a la familia Guenetxea-Iparragirre, y nos reafirmamos en el compromiso firme de continuar dando pasos en el camino de la solución democrática.*

Tras leer, el Sr. Alcalde dice que su grupo va a votar a favor porque está de acuerdo con la moción. La Sra. Regidor manifiesta que ella se va a abstener porque no tiene suficiente información sobre el asunto objeto de la moción.

Así, votada la moción, con el resultado de 1 abstención (Sra. Regidor) y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, la moción es aprobada.

**17.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:05 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**